

# *TXAGORRITXU OSPITALEAN 2000. URTEAN EGINDAKO AUTOPSIEN AURKIKUNTZAK*

## **Zaballa R.**

Anatomia patologikoa zerbitzua. Txagorritxu ospitalea. Gasteiz

### *Sarrera*

Urtero Txagorritxu ospitalean autopsien kopurua handia da, eta hauetatik askok gaixotasun terminalaren klinika dute.

### *Helburuak*

Gaixo terminal hauengan topatutako asaldurak klinikarekin harremanetan jartzen saiatzen da.

### *Metodoa*

202 autopsia aztertzen dira. Hauetatik, prozesu kliniko kronikoak zituztenak bakarrik hartzen dira.

### *Emaitzak*

Informe klinikoak 3 ataletan sailkatzen dira:

- Barreiadura tumoral eta prozesu kroniko inflamatorio/infekziosoa
- Endekapenezko gaixotasuna
- Asaldura hemodinamikoa

Atal kliniko bakoitzaren eta autopsien aurkikuntzen adostasuna ezartzen saiatzen da.

### *Ondorioak*

Kasu gehienetan topatutako bronkoaspirazioak endekapenezko gaixotasunaren klinika zutenen artean zeuden eta baita topatutako asaldura hemodinamikoak ere.

Arnas gutxiegitasunagatik eta akats multiorganikoengatik hildako gehienek barreiadura tumoralaren edo prozesu inflamatorio kronikoaren klinika zuten.

Egindako autopsia gehienek barreiadura tumoralaren klinika zuten.

Orokorrean: heriotzaren kausarik sarriena asaldura hemodinamikoarena izan da.

Aztertutako 121 autopsietatik 17 kasutan antzinako tuberkulosiaren aldaketak topatu ditugu, nahiz eta heriotzaren kausarekin harremanik eduki ez.

Endekapenezko gaixotasunaren klinika eta asaldura hemodinamikoaren klinika duten autopsien artean ez dugu topatu kasu bakar bat ere akats multiorganikoarekin.